

adizkerak. Euskaltzaindiak aita Iraizoz saritu nai luke ainbeste lan euskeraren alde egin duelako ta gaurko batzaraldi ontan beren *urgazle* izendatzen du.

II.—Euskaltzaindiak, zor dan begirunez, *Ministro de Instrucción Pública* jaunagana jo du : eskaturik, Euskaleriko Ikastetxetan, euskeraz izan dedila ikasleen jakinbide-auferapena.

III.—Il onen 30-an bukatuko da, aurtengo *Schuchardt* sarirako eman dan epea. Epaileak izendatu bear dira batzaldi ontako lanak aztertzeke. Azkue, Urkijo ta Lakonbe izan bitez.

IV.—Aita Intzak irakuñi dizkigu, napan-erriak bere elean darabilzkien itz batzuek. Gogoz entzun dizkiogu. Adierazi digu ordea, lan ontan ta Saraitzuko euskalkiari dagokionean, asko lagundu diola Lekunberiko Zadorlari jaunak. Eskerik aundienak bai aita Intzari, bai Zadorlari jaunari : oni batez ere bere gogoz lan ontan jardun duelako.

V.—Gure agirietan eskeñak azaldu bear dizkiogu, gure euskaltzainkide Kanpion jaunari, bere zortzi ta bederatzigaren «Euskariana-k» Euskaltzaindiari eman dizkiolako.

Ta beste gai batzuek urango batzarerako lagarik oitotzez amaitu da auxe.

---

Iruñan, Aldundi-Jauregian, 1930'ko Joñailaren 25'an.

Aurferko batzaraldian aipatzen diran jaun berak bildu dira, eta oi danez oitotzez asi da.

I.—Altube jaunak bere lan bat irakuñi digu: *Observaciones a algunos puntos de la Morfología vasca.*

Azkue jaunak egindako lan oferi oartxo batzuek ipintzen dizkio. *Euskera*'n argitaratuko da lan au.

II.—Azkue jaunak beste lan bat irakurri digu : *Acento tónico vasco*.

III.—Iztegi beñiaren lan eta azterketetan luzaro jardun degu.

IV.—Gure *Euskera*'ren lenbiziko datoñen zenbakian, Urgazleen izen-zerenda jariko da ta baita nun bizi diran ere.

V.—Poz aundiz Euskaltzaindiak entzun du, Gabel jaunak igortzen dion eskutitza. Euskaltzaindiak beste eskutitz bat egin zion bere *Ortografía vasca*'ren erantzunpidez ta oni erantzun dio Gabelek oraingo beretaz.

VI.—Mr. Veirin jaunak eskerak agertzen dizkigu Webster jaunaren oroipenerako 200 franko biali ditugulako.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

---

## **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean. 1930'ko Ofi- laren 26'an.**

Batzar ontan euskaltzain abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Lakonbe jaunak lan bat irakurri digu : euskal-izen batzuek erderazko *escorpión* adierazteko, Bonaparte jaunaren idazkietan idoroak. Bi itz ez ezik, besteak Azkue jaunaren iztegian daude.

II.—Azkue, Urkijo ta Lakonbe Schuchardt-erirako zetozen lanak aztertzeke izendatu ziran, ondoren epaia emateko. Bi lan bakarrik azaldu dira batzaldi